

Bidea urratu duten bertsoak

ARGIArekin opari

1885 ingurukoa da ezagutzen den lehen bertsoa, eta ordutik gaur arte emakumeek urratutako bidea bildu dugu, bertsoen bidez. Ezagutzak itzuliko ahal die dagokien lekua.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

BERTSO bilduma bat da otsailaren 9ko alearekin jasoko duzun liburuxka. Urratzaileak izatea, horixe dute hautatzerakoan erabili dudan irizpidea: ezagutzen diren lehen bertsoak direlako, 1918an herri bazkarian mahaira igota kantatu zituelako, jainkotzat zeukaten bertsolariari erantzun ziolako, txapelketan kantatutako lehen bertsoa izan zelako, txapeldunen agurrak direlako, gaiak taularatu dituztelako... Bertso jarriak dira nagusi -15 sorta, bat batekoak aldiz 8-, gaiak sakon lantzeko aukera ematen duten seinale. Eta poztu gaitu ARGIAko "Bertso Berriak" atalean bildumarako moduko sorta dextente aurkitu izanak.

Bertsoen atzeko bertsolaria berreskuratzen eta testuingurua azaltzen saiatu gara testu laburren eta argazkien bidez. Merezi du Joxepa Matea Zubeldia Elizegiren bizitza ezagutzea eta bere bertsoen bidez Hernanin emakumeek libratu zuten batailaren berri izatea. Edo *Xenpelar* bi bertsolariaren izena dela ohartzea, Joxepa Aranberri Petriren (1865ean jaioa) fabrikako langile eta bertsolaria izan baitzen.

Asko dira liburuetatik bazter utzi direnak -"emakume bertsolari gizatxar" edo "ondoko etxeko alabarekin aritzen zela bertsoan" gisako erreferentziak bai baina haien izenik eta bertsoirik ez da ageri liburu sail aberatsenean-. Zenbaten bertso jarriak erre ote dira? Ahoz aho transmititutako memoria kolektiboan ere apenas



ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek etxean jasoko dute.

egin zaien lekurik. Liburuxka honek, bere xumean, beti izan direnaren lekukotasuna biltzea eta beren bizitza eta bertsoak ezagutaraztea du helburu.

Nola gaude?

Minik handiena bertsolari gehien dauden garai honi orraze estua pasatzeak eman digu. Aberatsa gaiez eta kopuruz, lehen kolpean. Ordea, bilaketa egiterakoan oharitzen da bat bakarkako lanak direla ia denak (nola bertso jarrietan halaxe plazakoetan). Banaka sartu dira emakumeak oholtzan eta bakarka landu dituzte lehenengoz hainbat gai. Ezin dialektikarik, aniztasunik,

kontraesanik erraz irudikatu. Plazako joera orokorraren ertzean, badira elkarrekin landu izan diren hainbat emanaldi (*Kabareta*, *Ez da kasualitatea...*) eta ekintza (Azkizuko Topaketak, bertso eskola feministak...). Ekimen hauen berri ere bildu dugu. Bestalde, gazteak dira oholtzan dabilzanak eta heldu aroko gaiak eta ikuspegiak irabazteko daude oraindik.

Liburuxka hauei esker atera da

ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek emandako babes ekonomikoari esker argitaratu dugu bilduma hau ere. Horiez gain, liburuxka honen laguntzaile dira Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia eta Koldo Mitxelena Kulturunea.

Non eskuratu

ARGIA astekariko harpidedunek eta Interneteko laguntzaileek etxean jasoko dute. Kioskoetan alearekin batera banatuko dira. Eta zabalpena dugunez helburu, argia.com-en egongo da PDFa jaisteko aukera. Bertsozaleentzat erreferente diren beste hainbat ekitalditan ere banatuko dugu liburuxka: urtarrilaren 25ean Kursalen atarian (Bertso Eguna dela eta), AM Kultur Promotorak antolatutako kontzertuetan (Sortuko dira besteak eta abar), bertso eskola feministetan eta ohiko bertso eskoletan... ■

